

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Euskararen Nafar Kontseiluak aho batez onartu du adierazpen bat euskarak Nafarroaren berezko ondare gisa duen garrantzia nabarmenduz eta hizkuntza honen politizazioaren aurka

Bileran 2016ko Inkesta Soziolinguistikoaren aurrerapenaren berri eman da, eta Euskararen Plan Estrategikoa onartu da, besteak beste

Osteguna, 2017.eko urtarrilak 19

Euskararen Nafar Kontseiluak bertako lau kidek aurkeztutako [adierazpen instituzional](#) bat aho batez onartu du euskarak “Nafarroaren berezko hizkuntza gisa eta nafar guztien ondare gisa” duen garrantzia nabarmenduz. Horregatik, jarraitzen du adierazpenak, “euskararen ezagutza edozein pertsonarentzako aberasgarria da, balio erantsi bat”.



Euskararen Nafar Kontseiluaren bilera.

Adierazpenak, gainera, erantzukizun politikoak, sozialak eta ekonomikoak dituzten pertsonari eta erakundeei proposamen batzuk egiten dizkie, euskara erabil ez dezaten “gatazka politiko-sozial bat elikatzeko asmoz”.

Euskararen Nafar Kontseiluak, halaber, Euskararen Plan Estrategikoaren behin betiko testua aho batez onartu du, herritarrek parte hartzeko prozesuan egindako alegazioak nahiz ekarpenak jaso ondoren, azaroan amaitu zen prozesua. Guztira, planak 259 proposamen jaso zituen, eta haien % 65 onartu ziren. Nafarroako Gobernuak plana laster batean onartzea espero da.

4 gaztetatik 1 euskal hiztuna da

16 eta 24 urte arteko 4 gaztetatik 1 (% 25,8) euskal hiztuna da Nafarroan, hau da, % 150 igoera 1991n adin-talde horretan izandako portzentajearekin alderatuz (% 10ekoa izan zen), 2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera. Inkesta horren lehenengo datuak gaur aurreratu ditu Euskararen Nafar Kontseiluak.

Epe horretan, 16 urtetik gorako biztanleen euskararen ezagutzaren bilakaera 3,4 puntu hazi da; hala, % 9,5etik egungo % 12,9ra igo da. Datuek euskararekiko jarreraren bilakaera positiboa adierazten dute, gainera; biztanleen % 33,3 hizkuntza hori sustatzearen alde agertzen da

(% 21,6 1991. urtean). Inkesta Euskararen Nafar Kontseiluko kideek gaur goizean aztertu dute Nafarroako Jauregian egindako bilkuran.

Euskararen Inkesta Soziolinguistikoa bost urtetik behin egiten da, 1991. urtetik, euskara hitz egiten den lurralde guztian: Nafarroako Foru Komunitatean, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Iparraldean, lurralde horietako erakunde publikoek sustatuta (Nafarroako Gobernua, Eusko Jauriaritza eta Euskararen Erakunde Publikoa). Tresna horren bidez, egungo datuak aurreko lanetakoekin aldera daitezke, eta euskararen egoeraren bilakaera azter daiteke; hala, hizkuntz politikaren politika publikoak planifikatu ahalko dira. Nafarroako inkestarako landa-lana 2016ko maiatzean egin zuen Ikertalde enpresak 16 urteko edo hortik gorako biztanleen artean.

Inkesta horren datuak Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko dira datozen asteotan, arlo horretan indarrean dagoen legeriak dioen moduan.

Euskararen Nafar Kontseilua Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikan duen kontsultarako organo bat da. Lehendakaritza Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko pertsona titularrari dagokio, eta honako erakunde hauetako ordezkariak osatzen dute: Nafarroako Gobernua – Euskarabidea eta tartean dauden beste arlo batzuk–, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Unibertsitatea, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroako Ikastolen Elkarteak, Nafarroako Kazetarien Elkarteak, kultur erakundeak edo euskara sustatzen duten gizarte-ekimeneko erakundeak, eta euskararen nahiz euskal kulturaren alorrean ospe handia duten pertsonak.